

"Historian atzera, bi munduren arteko talka"

Janire Garcia / bgbiz

Banarte Antzerki Taldeak eszenaratutako "Guernica 1913" antzezlanak, "2013 Espainiako Antzerki Garaikide Sari Nagusia" jaso dau. Sari hori 2014ko urtarrilen 31an ospatutako elkartekideen arteko Batzar Orokorrean hartutako erabagiaren emaitza da. 2014ko zemendiaren 31an jasoko dabe saria Mediterranioko Antzerki Amateurraren Nazinoarteko VIII. Topaketen itxiera ekitaldian.

Abadiñoako Banarte Antzerki taldeak, mugari bikoitx bat lortu dau: alde batetik, Espainiako Antzerki Garaikide Sari Nagusia lortu dau "Guernica 1013" antzezlanari esker. Bestalde, arte eszenikoen sari honek, estaduan zehar Euskadin ezaguna ez dan pasarte bat ezagutaraztera eroan dau.


Talde bizkaitar honek, 2014ko zemendian jasoko dabe saria Mediterranioko Antzerki Amateurraren Nazinoarteko VIII. Topaketen itxiera ekitaldian. Rafa Hercek, obraren gidogile, produktore eta aktoreak azaldu dauenez, "sari hau abal bat dau gurezat". "Gurea dan talde txiki batentzako eta edozein oztopoei aurre egin behar deusala kontuan hartuta antzerkia ezagutzen dauen jenteak eta beste puntan bizi dan jenteak esatea gure obra oso ona dala eta sari bat merezi dauela, errekonozimendu eta babes handi bat da".

Sari hau emotearen idea, 2014ko urtarrilean ospatutako elkartekideen arteko Batzar Orokorrean hartutako erabagien esku emon da. "Aurrera jarraitzeko animo handiak emon deuskuz. Lan asko dago egiteko", adierazo dau Hercek. "jendearen txalo zaparradeagaz konturatzen zara gustuko dan obra bat dela".

Jadanik, Gernika-Lumoko Lizeoan, Durangoko San Agustin Kultur Gunean, Abadiñoako Errotan eta Ortuellako Gorbean antzeztu izan dabe obra hau. Gainera, sari hau emonda, aurreikusi daiteke, obra honen interesa oso handia izango dala, bai Euskadin eta bai Euskaditik kanpo irtenez gero. "Gertaera istorio euskaldarra dogu, baina unibersala. Bi klaseen arteko borroka", azpimarratu dau Hercek.

Gernika. 1913ko gertakariak: greba bat baino gehiago

Aktore nagusiak, ugazabak eta beharginak, eibartarrak dira. Gauza da Eibarreko



Esperanza-Unceta enpresak Gernikara jo ebala bertan lantegi barria egiteko asmoz. "Astra" izeneko pistola famadua egingo eban enpresak alde egitearen errazoiak bat baino gehiago ziran. Alde egiteagaz batzuek Pistolaginen Sindikatuaren kontrolpetik urruntzeko xedea ikusten eben, enpresak, barriz, Gernikako doako eraikinaren eskaintza azpimarratzen eban. Halaber, gainerako enpresa armaginengandik aparteteko asmoa be agerten zan: Eibarreko beste enpresa armaginen konkurrentziaren bildur omen ziran.

Eibarreko lantegiaren gernikaratzea herritik ia ehun langile, beren familia eta guzti, propio antolatuko dan trenean doazalarik burutuko da. Alde batetik, Gernika nekazari eta eskulangile izaerako herria, burgesia gainhartzaile ahalguztiduna nagusi, ordura arte ia industrialariak izan ez dauen herri baketsua da. Bestetik, Eibarreko armaginak lantegi barri haretara lanera datozanak dira. Beste hegalean, Eibarretik alde egitean mesedea baino espero ez daben enpresa-gizonak. Eta erdian, indar mediatikoak,

hots, prentsa kontserbadorea, herriaren trinkotasuna apurtzera datozen langileen bildur, ongizate morala eta espirituaren bakea.

Aurreiritzi hareegaz guztiekin bagilaren amaierarako Gernikan ziran eibartarrak. Eta euren lehenbiziko eginkizuna, Eibarren ebenaren antzera Langile Pistolaginen Sindikatua sortzea izan zan. Ez eban hasiera ona izan Gernikako enpresak. Ez behintzat lan harremanen aldetik. Produktuzinoari ekin eta hamabost egunera lan baldintzak aldarazi bide eutsezan zenbait langileri. Hura erdi konpondu zan, baina harrezkeroko bilakaerak ez eban atsedean girorik ezagutu. Baimen baten ondoren bere lanpostura berandu itzuli zan eibartar langile baten kasutik hasita, gauza da irailerako greba deitua ebala fabrikako langileriak. Zigortutako langilea barriro be lehenengo lanean hartzeaz kanpo, lau puntuko errebindikazioa plazaratzen eben beharginak. Eta zuzendariak langileen eskaerak onartu ez zituelarik horra nola bete zan iragarle



"Guernica 1913
antzerkiaren helburu
nagusia bertoko historia
ezagutaraztea da,
emozinoak azaleratuz"

"Orain lana ahalik eta
leku gehienetara erotea
da helburua"

"1913an girotutako obra
izan arren, gaur egungo
problematikiei buruz be
egiten dau berba"

"Banarte, Banarteko
jenteak nahi dauena izeten
jarraituko dau"



gaiztoek aurreikusten eban. Gernikak be
historiako lehenengo greba ezagutuko
eban.

Gauzak horrela, inork amore emoten ez
ebalarik, grebak jarraitu egin eban. Estu
egozan grebalariei Eibarreko langileen diru
laguntzak iritsi jakezan. Amuategi eta
Marzelino Baskaranek urriaren 3ko
asanbladan animatu egin zituen langileak
gernikar grebalarien alde. Hiru egun
beranduago Amuategi Gernikan zan
jasotako dirua banatzen. Solidaridadeak
beste alderdi batzuk be bereganatu zituen.
Hatan honetan grebak istilu handirik gabe
jarraitzen eban enpresak eskirolak
erabilzalarik besteen ordez. Hilearen
hamabian barrero be mitina ospatu zan
Gernikan de Francisco eta Amuategi bertan
ziralarik. Hain zuzen, Esperanza eta Unceta
enpresa inguruko herrietan inolako lan-
prestakuntzarik ez eban langile barriak
hartzen hasi zan: emakumeak, haurrak,
gaztetxoak etab..

Auzia estutzen joian eta jarrerak urruntzen.
Azkenean armaginak erabagi insolitoa

hartu eban. Eibarrera itzuliko ziran etorri
ziran bezala. Lau hilebeteko abentura
gernikarra amaiturik geratu zan. Ez, oso-
osorik. Izan be, bi hilebete geroago, beste
armagin batzuk itzuli ziran Gernikara,
euren lanbidea erakutsi eta enpresa barri
bat abian jartzera: Alkartasuna izenekoa,
"Alkar" pistola egingo eban. Eibartarren
hazia ereinda geratu zan euskal foruen
ikur genduan Gernikan.

1913 Eta 2013ko pertsonaiak

"Guernica 1913" antzezlanak klase-
burruken inguruko gertaera bat
eszenaritzen dau: Gernikako Esperanza y
Unceta lantegiko langile eibartarrek
1913ko udazkenean burutu eta amaiera
epikoa izan eban greba. Benetako
gertaeretan oinarritutako ikuskizunak, giza
maila desbardinaren eta antagonikoak diran
bi munduen arteko uztarketa, eta alkarketa

horretatik sortu zan gizarte barria,
damaskinuan burdinea eta urrea
buztartetik bitxia sortzen dan moduan.

Lehen fabrika, lehen greba, lehen
aldarrikapenak, maila-agintariari egindako
lehen eskakizunak, lehen protestak,
eleizaren eta fedearen izenean eta
konbikzioan jarritako autoridadeaganazko
lehen zalantzak... Bata besteaganazko
gutziz kontrakoak ziran bi mundu alkartu
ziran, bi gizarte maila antagoniko, eta
alkarketa horretatik sortu zan gizarte barria,
damaskinuan burdinea eta urrea
uztartetetik bitxia sorteen dan moduan.

Bere baitan baegozan betiko
maitetasunaren inguruko balioak, gazteria,
lana, emakumea gizartearen euskarritzat,
gaur egungo errealitatearekin alderatuz
kontrapuntua argia da; balio aldaketa,

 IZARRO ERAIKUNTZARAKO MATERIALEAK MANPOSTERIARAKO LAJAK BAÑUKO MUEBLEAK ETA AZULEJOAK HARRIAK	 ESKATZAK	 PLADUR
	 VELUX La ventana para tu vida	 Hergóm ESKATZAK
	 URALITA	 HALITA
	 HALITA ARKOS LIGEROS, S.A.	 Onduline Onduline de Guernica, S.A.
	 GURALD	 GURALD

ZUBI
aholkularitza

Kontabilitate, nominak
aseguruak, kontratuak
propietarioen komunitateak

Askatasun kalea, 5

Funeraria - Tanataria

IZARO

Hileta zerbitzuak



burrugarako jarrera aldaketa... "Gure arbasoei eregitzea hainbeste kostatu jaken hura, nola erorten dan ikusten dogu", adierazoten dau Hercekek.

Bi munduak alkarrerri emoten diote pausu: urte batean jaiotako dokumentuak beste batean azterten dira, antzinako objektuak eszenan kaleratzen dira... Bi narrazio honeek gauza asko dukiez komunean, bai pertsonaiei begira eta bai testuinguru soziala kontuan hartuta. Biak aztoratuta eta greba inguruan. Baina kontuan harturik jadanik ez dala lehen moduan burrukatzen. Halan nola, 1913ko greba modu egoki batean bukatzen da langileentzat, bestalde 2013koan enpresa badoa eta indemnitzazio prozesu bat emoten da.

Antzezlanaren benetako gertaeretan oinarrituta dago, Txato Etxanizek, Gernikazarra alkarteko kideak, ikertutako eta jasotako informazioari esker, Rafa Hercekek idatzi

dau antzezlanaren, eta Sardo Irizarrik zuzendu dau, Jabier Obregonen kolaborazioarekin eszenografiari. Fikzinozko istorio bat da, non pertsonaia guztiak asmatuak diran abadea izan ezik.

Egungo "balio eta burruka molde aldaketa, eta altxetea horrenbeste kostatu zana zelan jausten doan", erakutsi gura dabe lan honek Banartekoek. Banarte antzerki taldeak orain dala hiru urte hasi zantzezlan honetan lan egiten. Jorrailaren 13an, Urduliz-eko Kultur etxean egongo dira eta maiatzaren 10ean, Barakaldoko Clara Campoamor Kultur Zentroan.

Zerrenda honako hauek osotzen dabe: "Guernica 1913" Rafa Herce (Eibar 1960) idatzitako antzezlan bat da. Lan honen helburua ikusleak 1913. urtean Gernikako herrian gertatu zantzebaren barri izetea da. Rafa Hercekek lan honek Txato Etxanizek be lan historiografikoan hain

ondo landutako gertaera hau antzerkikidarama. Gure historia modernoaren atal hau modu arin, entretenigarri eta dinamiko batean kontatzen deuto kaleko ikusleari egile eibartarrak.

Lan honen zuzendaria Sardo Irizarri (Eibar 1963) da. Irizarrik antzerki munduan be lehen pausuak Geroa Taldean emon ebazan, Paco Obregonen eskutik. Momentu haretatik 30 urte pasa dira eta antzerkiaren mundua ez dau sekula itxi.


Eszenografia Javier Obregonena da, Euskal Herriko Antzerkiaren erreferenteetako batena. Irizarri lez, Geroan emon ebazan bere lehen pausuak mundu honetan eta Kukubiltxo taldean bide luzea egindakoa da. Musika Aitor Coellorena da, Jantziak Iolanda Iriondoren kargu dagoz bestalde. Estilista profesionala, ikusi-entzutezko hainbat proiektuetan eta telebistan parte hartutakoa da. Argiztapena Obregonek eta



Egun hori ez da egun arrunta izango, greba luze baten azken eguna da. Gernikako herritarrak ikusleztat dabelarik. Greba honetan "Asociacion de obreros pistoleros de Guernica y Lumo"-ko "Txisperuak" doguz alde batetik eta bestetik Juan Esperanza eta Juan Pedro Unceta enpresaren jabeak podere tradizionalak aldamenean dabezalarik. Egun berebean Justina Arratek haundun dagoanaren barria jasoten dau eta, horregaz batera, Bonifacio Ormaecheverria abadearen bisitari aurre egin beharko deutso, hau Santa Maria parrokiako parrokoa da eta greba barrutik leherrarazteko Justina erabili nahiko dau.

"Guernica 1913" lanak, gaur egungo euskal soziedadearen jaiotza emoten deutso erakustera ikusleei. Gernikan Eibartarren esku emoten dan "grebaren amaiera epikoa". Kontzientzia politiko eta sozial bat dabela aldarrikatzen dabe. Gaur egun, 100 urte beranduago, arazo bardinak dagoz beste testuinguru batean. Aurrerapen ekonomikoek eta sozialek gizarte-mailen arteko desbardintasan txikitu dabez gizarte bardintsuago bat sortuz, non individualismoak taldearen aldeko jarrera ordeztu dauan. "Guernica 1913" obran, Arrate eta bere haundunaldia dira adibide nagusi. Izan be, Arrate, bere familia eta bizitza propioa garatzen hasten dan egoera batean agerten da.

Obra honen pertsonaia printzipalena Justina da eta ez bere senarra. Lan egiteari usten ez dion personai da, bai etxean eta bai etxetik kanpo. Aintzinako eta gaur egungo soziedadearen egiturazko fundamentua be horretan jarraitzen dau, ez da aldaketarik emon. Etxetik kanporako lana eta hezkuntza sarbide bat izan da emakumeentzako; ekonomikokiro independenteak izateko. Emakumea, be etxeko gauzei arreta mantentzeaz aparte, soziedadean bide bat egiteko gai izan da. Gizonak bitartean, etxeko erresponsabilitateei aurre egiteko gai ez da agertu oraindik.



Hercek diseinutakoa da, F.Antzuloa-ren eta Juan Lopez Arce-ren (Kultiba Kultur Aldaketak) laguntzaz, argiztapen-teknikoa Eneko Sarriugarte dalarik eta bestalde audioaren arduraduna Miguel Martinez da.

Planteamentu komunikatiboa

Antzezlanak Larragoikoatarren egun bateko bizipenak kontatzen dauz. Fermin Larragoikoa eta Justina Garate Gernikan kokatu barri dira euren alaba Arraterekin, Ferminen enpresa (Esperanza y Unceta lantegia) Eibarretik Gernikara aldatu baita.

BANARTE ANTZERKI TALDEA

Banarte Antzerki taldea Abadiñon sortu zan hainbat diziplina lantzeko asmoagaz, baina antzerkigintzeagaz diziplina nagusi bezala. 2007an jaio zanetik jarduera moltso garrantzitsua antolatu izan dau. Heziketa-saioak aitamen berezi bat merezi dabe: Banarteko Taldekideak ez ezik herritar guztiek parte hartzeko aukera bait dabe.

David Barberoren "Vuelve, bigotillo, vuelve" eta Alejandro Liconaren "Abuelita de Batman" antzezlanak ekoiztu dabez. Obra biak ikuslegoan harrera bikaina izan dabelarik. Honegaz batera aipatu beharrekoa da kartelean 5 urte daramatzan ikuskizuna, hau da, "el klub de la comedia" programaren tankerako bakarrizketa saioa.

XXI. mendetik eleizaren garrantzia soziedadean ulertzea zaila izan da, nahiz eta argiak ez izan konturatzeko abadeak eta eleizak daben podereaz. Testuinguru honetan uler daiteke mezuak eban garrantzia. Eleizak herritarrengan eban kontrola. Obran, Don Bonifacio, Gernikako Santa Maria eleizako parrokoak, Justinarengana jotzen dau greba eteteko asmoz. Soziedadean daukan boterea erakusten dau bere lagun eibartarrari "txisperuak" eta Justinaren informazioa eskatuz.

Obra hau, 1913. urtean girotuta egon arren, gaur egungo problematikei buruz egiten dau berba. Helburua, Hercek adierazo dauen moduan, bertoko historia ezagutaraztea da, emozinoak azaleratuz. "Lana ahalik eta leku gehienetara eroatea, ezaguna izan dadin".

